



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

2015EKO MARTXOAREN 6KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Ohiko bilera.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2015.03.06.
Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Ander Almandoz Indacoechea jn.
Zinegotziak:
Koldobike Gorostiza Uriguen and
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.
Teodoro Pikabea Zubieta jn.

Bertaratu ez direnak:

Mikel Leiza Etxeberria jn.
Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Larretako mugaketari buruz.
- 3.-Mankomunitateak banatutako zabor ontzien kokapena.
- 4.-Meakako zaborra.
- 5.-Erregistro Zibilari buruzko mozioa.
- 6.-Euskadi Txirrindularitza Iraskundea: diru laguntza eskaera.
- 7.-UEMAko idatzia.
- 8.-FAURECIA enpresaren itxiera.
- 9.-Martxoaren 8ko emakumeen nazioarteko egunaren adierazpen instituzionala.
- 10.-Otxuneko Bordan egindako obrak.
- 11.- Bertizko Partzuergo Turistikoaren desegiteari buruz.
- 12.- Cederna-Garalur: bide berdearen kudeaketari buruz.
- 13.- Arantzako Guraso Elkartearen gastuak.
- 14.- Condesa taldeko ELA eta LAB-en mozioa.
- 15.-Alkatearen ebazpenak.
- 16.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2015eko otsailaren 4an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez,
ONARTU DUTE.

2.-LARRETAKO MUGAKETARI BURUZ.

Arantzako Udalak 2014ko irailaren 4an erabaki zuen Larretako alderdiko bidearen mugaketa egitea (5. poligonoko 560, 561, 562, 564, 565, 567, 605, 604, 603, 602 eta 729 lur zatien artekoa), gascua onartzea, akordioaren berri eman bideak ukitzen dion jabe guztiei eta finka horien gainean errotutako eskubide errealeen titularrei eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta iragarki oholean iragarkia argitaratzea eta ondorengo 40 egunetan interesatuek beren eskubideak defendatzeko egoki deritzen dokumentu guztiak aurkezteko epea irekitzea. Epe hori iraganik, ez da agiri edo alegaziorik onartuko eta erabaki hau eta mugaketa egiteko eguna eta tokia Udalaren iragarki oholean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Ondoren, Jose Antonio Bereau Macicior jaunak eta Maria Jesus Echeverria Agesta andreak 2014ko urriaren 22an aurkeztutako idatzian, martxoaren 24ko bilera Arantzako Udalak egindako proposamena onartzea eskatzen dute, hau da, Larretako bidea anulatzea eta lekuz aldatzeko trukaketa berriro ere planteatzea.

Arantzako Udalak aipatutako proposamena onartu zuen, orain arte Udalak egindako gascuak euren kargu hartzeko baldintza pean eta bilera bat egitea proposamena aztertzeko.

Bilera egin ondoren bidearen zabaltasuna aztertu zen eta bertara joan ondoren Jose Antonio Bereau jaunak metro bateko bide berria egitea proposatu zuen.

Udalak gaia aztertu ondoren aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Jose Antonio Bereau Macicior jauna eta M. Jesus Echeverria Agesta andreari jakinaraztea bidearen zabaltasuna 1,5 metrokoa izan beharko duela.

2) Jose Antonio Bereau Macicior jauna eta M. Jesus Echeverria Agesta andreari hilabete bateko epea ematea proposamen horri erantzuteko. Epea pasatu ondoren, erantzunik gabe, hasitako mugaketa espedientearekin jarraituko dela jakinaraztea.

3.-MANKOMUNITATEAK BANATUTAKO ZABOR ONTZIEN KOKAPENA.

Zinegotziek hainbat behar ikusten dute herrian barna zabor ontzi gehiago banatzeko; horrela, parkean (4) , frontoian (4), plazan (2) eta Goiko Karrikan (1) jartzea erabaki da zabor bilketa hobea egiteko.

4.-MEAKAKO ZABORRA.

Ikusirik Iñaki Mikelarena jaunak eta M.Isabel Taberna andreak 5.poligonoko 277. eta 692. lur zatietan daukaten zaborra: harria, adreiluak, teilak, hormigoia eta fibrozementua.

Kontuan hartuz fibrozementuaren arriskua pertsonentzat eta ingurunearentzat.

Ikusirik Udaleko arkitektoen txostena.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Iñaki Mikelarena jauna eta M.Isabel Taberna andreari fibrozementuaren hondakinak kendu eta hondakin arriskutsuak jasotzeko baimena duen zabortege batera eramateko eskatzea (Nafar Gobernuako Hondakinen arriskutsuen kudeatzaileen zerrendan dagoen kudeatzaile bat kontratatuz) eta gaineko materialak birziklatzea eskatzea .

2) Iñaki Mikelarena jauna eta M.Isabel Taberna andreari jakinaraztea ezin dela aipatutako zaborra lurperatu.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

3) Iñaki Mikelarena jauna eta M. Isabel Taberna andreari lur zatiak garbi eta txukun uzteko eskatzea.

4) Iñaki Mikelarena jauna eta M. Isabel Taberna andreari epe hau ematea aipatutako lanak egiteko: 2015eko apirilaren 10a.

5.-ERREGISTRO ZIBILARI BURUZKO MOZIOA.

Erregistro Zibilak gure bizitzaren gertaera garrantzitsuenak jasotzen ditu. Bertan erregistratzen dira norberaren jaiotza, ezkontza, seme-alabak, eta heriotza. Baita hasierako inskripzioa aldatzea eragiten duten bizi gorabeherak jasotzeko espedienteak ere izapidetzen dira hor: aitatasun edo amatasun aitortzea; adopzioa; ezgaitasun-deklarazioa; tutoretzak; izen, abizen edota sexu aldaketak; nazionalitatea eskuratzea; pentsio publikoak edo aseguruak edo osagai pribatuak edo enpresarenak kobratzen jarraitu ahal izateko gure nagusiek hain beharrezkoa duten bizi-agiria ematea. Horregatik, funtzionario publikoak izan dira Erregistro Zibila eraman dutenak betidanik; izan ere, duela zenbait urte Justizia Ministerioko (edo erkide autonomiko Justizia saileko) funtzionarioek bermatzen dituzte jasotako datuak eta, era berean, legalki dagozkion pertsonari haien eskuratze libre eta doakoa.

Bake epaitegiak herritarrei Justizia administrazioa hurbiltzen diete, alderdi diren edozein prozeduraren inguruko informazio orokorra eskaintzen dietelako, eta honez gain, Erregistro Zibileko izapideak betetzen dituztelako. Horrela, herritarrek ez dute horrelako tramiteak egiteko hiriburueta joan behar, hainbat herritan bake epaitegia dagoelako.

Azken urteetan, gainera, Herri Administrazioak diru inbertsio handia egin du Erregistro Zibilaren jarduna modernizatzeko: zerbitzu honi dagozkion dokumentuak informatizatu eta digitalizatu eta bertan dauden datu guztietarako sarbide eta erabilpen segurua eta kontrolatua izateko programa martxan jarri du. Zehazki, diru publikotik 128 milioi euro baino gehiago inbertitu dira teknologia berri hauetan.

Alderdi Popularraren gobernuak Erregistro Zibila esku pribatuetan utzi nahi du, horren kudeaketa merkataritza erregistratzaileei emanez, bake epaitegien eta gaurko barruti judizialen existentzia zalantzan jarriz. Horrela jasotzen da Botere Judizialaren Lege Organikoa eta Auzitegi eta Epaitegien Mugape eta Antolaketari buruzko Legea aldatzeko aurreproiektuetan, eta uztailaren 4ko 8/2014 Errege Dekretu Legean.

Zehazki, pribatizazioak ekarriko ditu:

1.- 3.500 langile publikoen lanpostuen galera. Hauek prestatuak izan dira, eta gaitasuna eta espezializazioaren jabe dira Erregistro Zibil arloan.

2.- Bake epaitegiak egungo zereginen hustea lehen neurria da, euren desagertzea bilatuz gerokoan. Norabide horretan, Botere Judizialaren Lege Organikoan eta Auzitegi eta Epaitegien Mugape eta Antolaketari buruzko Legean egindako aldaketek aukera ematen diete, ez soilik bake epaitegiak desagertzeko aukera, baizik eta barruti judizial gehienak ere, epaitegiak hiriburueta soilik kokatuko dituztelarik.

3.- Tasak jarriko dira zerbitzua ematearen truke. Egia da 8/2014 Errege Dekretu Legeak esaten duela zerbitzua doakoa izango dela, baina Merkataritza Erregistratzaileak, lanbidera sartzeko erari eta monopolio gisa duten zereginari dagokienez, funtzionario publikoak izan arren, muga-zergen bitartez kobratzen dute egindako zerbitzua; eta etorkizunean, Erregistro Zibilean egin beharreko izapideak ere horien bitartez kobratuko dituzte, hau da, herritarrei nahitaezkoak zaizkien jaiotze bat erregistratu, familia liburua, heriotza, ziurtagiriak, bizi eta egoera agiriak, etab...

Gainera, lege berriak erregistratzaileen ahalmenak handitzen ditu eta inskribatu beharreko kontuak ikaragarri puzten (edozein ahalorde, helbide inskripzioak, pentsio-planak, testamentuak...), hauek guztiak, jakina, herritarrek ordaindu beharko dituzte. Horrela, hemendik aurrera Erregistro Zibilak merkatal jarduera izango du, eta egite bakoitzak bere salneurria izango du, eta jasotako dirua gutxiengo pribilegiatu horientzat izango da.

4.- Datu babesaren segurtasun falta. Merkataritza Erregistroko langileak ez dira funtzionario publikoak baina herritarren datu pertsonaletarako sarbidea izango dute, nahiz eta funtzionario publikoak ditugun isilpeko eta sekretuko betebeharrak ez izan.

5.- Azken urteetan Erregistro Zibila modernizatzeko egindako inbertsioa esku pribatuetara pasatuko da, kudeaketaren emate horrek baitakartza baliabide material guztion ematea ere. Baliabide materialak ematea diru publikoa xahutzea da: inbertsioak eginak daudelako, baliabide materialak ordainduak, azpiegiturak eginak eta giza baliabideak kontratatuak, formatuak eta gaituak. Hots, diru publikotik 128 milioi euro oparituak zaie Merkataritza erregistratzaileei euren onerako.

6.- Erregistro Zibilean gordetzen diren gure historia pertsonalerako, familiarerako eta herri gisa dauzkagun datuetarako sarbidea murriztea. Gure arbasoen, haien jatorriaren eta bizimoduaren gaineko informazioa aurki baitaiteke bertan.

Hau guztia dela eta, aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Merkataritza erregistratzaileei Erregistro Zibilaren kudeaketa ematen dion uztailearen 4ko 8/2014ko Errege Dekretu Legearen aurka agertzea.

2) Halaber, adieraztea bake-epaitegiak eta gaurko Erregistro Zibilaren bulegoak izan behar direla Erregistro Zibilak kudeatzen dutenak, herritarrei zerbitzu publikoa eta dohainikakoa eskainiz, orain eta betiko.

6.-EUSKADI TXIRRINDULARITZA IRASKUNDEA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Euskadi Txirrindularitza Iraskundeak aurkeztutako diru laguntza eskaera Kontuan hartuz 2015eko aurrekontua ez dela partidarik.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Euskadi txirrindularitza Iraskundeari diru laguntzik ez ematea.

7.-UEMAKO IDATZIA.

Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkaria udalen jardunean gauzatzen ari diren esku-hartzeak bete-betean harrapatu gaitu UEMA eta bertako udalak. Kontratazioetako hizkuntza irizpideak, diru-laguntzetarako hizkuntza irizpideak, aktak euskaraz bidaltzea edota udalak euskalduntzeko adostutako hizkuntza irizpideak susmopean jarri dituzte. Bi udalek UEMA n, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean sartzeko hartutako erabakiaren aurka ere jo du Espainiako Gobernuaren ordezkariak.

Horrela, udalen eguneroko jarduna eta udalok euskara sustatzeko egiten ari garen lana baldintzatzen dute. Administrazio publikoak hainbat zerbitzu erdara hutsean eskaintzen dituen bitartean, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzeko prestatuta gauden udalak dira susmopean jarri nahi izan dituztenak.

Egoera larria da, teoriarik euskara ofiziala den eremuan ere, praktikan euskarak, erdara erabili ezean, ez duela balio ofizialik esaten digute errekerimendu eta helegiteen bitartez.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

Egoera honen aurrean, aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Arantzako Udalak euskara sustatzeko egiten ari den ahalegina berretsi nahi du. Euskararen bidea beste eragile eta instituzioekin elkarlanean garatzeko konpromisoa adierazi nahi du.

2) Gure herria berezia da hizkuntzaren ikuspegitik. Horregatik, udalerrri euskaldunak, euskararen arnaguneak indartzeko, politika eraginkorrak abian jartzen saiatuko gara; hizkuntza politika euskara sailetik harago eraman, eta euskararen arnaguneak duten garrantzia aintzat hartuta, politika orokorraren erdigunean kokatzen saiatuz.

3) Salatu nahi dugu Nafarroako Gobernuaren esku-hartzea. Eta Nafarroako Gobernuari eskatu nahi diogu euskara sustatzeko ahaleginean ari garen udalerrri euskaldunetako Udalak errespetatzeko.

4) Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak deituta, euskaldunoi ezartzen zaizkigun oztupoak salatu eta euskaraz bizitzeko nahia aldarrikatzeko, otsailaren 28an, 17:30ean, Donostiako Gipuzkoa Plazatik abiatuta egingo den Manifestazioarekin bat egin nahi du Arantzako Udalak. Herritarrei dei egin nahi diegu mobilizazioan parte hartzeko.

8.-FAURECIA ENPRESAREN ITXIERA.

Ikusirik Faurecia Burlada enpresako enpresa komiteak aurkeztutako idatzia, bere itxiera dela eta (189 langile).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Faurecia Burlada enpresako langileei elkartasuna adieraztea.

2) Atxikimendu hau Nafarroako Gobernuaren lehen lehendakariorde eta Ekonomia kontseilariari den Lourdes Goicoechea andreari bidaltzea, bere esku dagoen guztia egiteko eskatuz eta enpresaren bideragarritasun konponbidea bilatuz (Industrias Cousin Freres komitearen eta bi multinazionalen artean).

9.-MARTXOAREN 8KO EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA..

Emakumeen Nazioarteko Egunean badaukagu zer ospatu eta zer aldarrikatu. Baina, batez ere, nabarmendu nahi ditugu, krisialdiaren aitzakian, botere ekonomiko eta politikoak hartzen ari diren erabakiek pertsonen bizitzetan eta bereziki emakumeengan dauzkaten ondorio lazarriak.

Diskurtso ofizialen arabera, krisia sortu da merkatuak errentagarritasuna galdu duelako. Guretzat, ordea, krisian gaude kapitala ezinezko bihurtzen ari delako bizitza duinak izatea. Krisi-egoera honetan, merkatuen errentagarritasuna handitu nahian, austeritate neurriak jarri dituzte martxan, urteetako borrokaren bitartez irabazitako eskubideak galtzeko arriskuan jarritz..

Ekonomiaren oinarrian etxeko lanak eta zaintza-lanak dauden arren, sistema kapitalistak lan hauek gutxietsi egiten ditu. Ezkutuan geratzen dira, sozialki ez dira errekonozitzen eta ordaindu ere ez. Lan-estatusa bera ukatu egiten die, nahiz eta jakin bizitzaren oinarria direla, lan-indarra sortu eta mantentzen duten lanak direlako. Eta ekonomiaren, aberastasunaren eta lanaren kontzeptuak finantzen munduarekin, lan ordainduarekin, lan-“produktiboa”rekin lotzen dira, guztiaren erdigunean jarritz. Merkatu kapitalista jartzen da ekonomiaren erdigunean eta bizitza honen zerbitzura, alderantziz egin orde.

Etxeko lanen eta zaintza-lanen ardura nagusiki emakumeei ezartzen zaiela kontuan izanda bakarrik uler daiteke emakumeek lan-merkatuan duten leku marjinala eta esplotazio bikoitza. Lan-merkatuan emakumeek gizonezkoek baino %36,2 gutxiago kobratzen dute. Lanaldi partzialetan dauden %80,9 emakumeak dira. Lan-merkatuak emakumeak bigarren mailako langile gisa erabiltzen ditu, haien lekua, nagusiki, etxean dagoela defendatzen duelako. Sistema kapitalista eta patriarkatua gainditzeko beharra inoiz baino ageriago agertzen zaigu, bizitza ekonomiaren erdigunean jarri ahal izateko, zaintza-lanak errekonozitzeko, sexuaren araberako lan-banaketarekin bukatzeko, bizitza duinak bizi ahal izateko.

Martxoaren 8 honetan badugu zer ospaturik, bestalde. Aurreko urteko adierazpenean abortuaren kontrarreformaren mehatxua aipatzen genuen. Mugimendu feministarekin batera euskal jendartearen gehiengo batek egindako borrokari esker erreforma gelditzea lortu dugula ospatuko dugu. Dena den, emakumeon askatasunaren eta aniztasunaren kontrako eraso gehiago helduko dira, emakumea emazte-ama fin, otzan eta menpeko bihurtzeko. Patriarkatuaren zutabea den familia-eredu tradizionala, heteropatriarkala, indartzeko neurriak dira.

Emakumeen bizi-baldintzez ari garelarik, ezin ahaztu indarkeria matxista. Indarkeria matxista sistema patriarkalaren adierazpide bat da, adierazpiderik edo ondoriorik larriena. 2014an 5 emakume hil ditu indarkeria matxistak. Indarkeria matxista salbuespeneko gertakizun bat ez den neurrian eta gure egunerokotasunean bizi dugun neurrian, lehen mailako arazoa da guretzat.

Aipatutako guztia kontuan hartuta,

Udal honek, aho batez, ERABAKI DUTE

1) Agintaldi honetan udalean parekidetasuna lantzeko egindako lanean sakontzeko konpromiso irmoa adierazi nahi dugu eta emakume eta gizon askeen Euskal Herria helburu lan egiten jarraitzeko konpromisoa hartu gure herrian biolentziarik gabeko bizitza bizitzeko eremua izateko bitartekoak jarritz, emakume elkarte eta mugimendu feministarekin elkarlana bultzatuz, eta gure herriko emakumeak bizitzea merezi duten bizitza duinak izateko politikak garatuz.

10.-OTXUNEKO BORDAN EGINDAKO OBRAK.

Aztertu da David Vertiz Hazen jaunak Otxuneko Bordan baimenarik gabe egindako obrak eta berari 2015eko otsailaren 12an jakinarazitako Udaleko Arkitektoen txostena, hainbat dokumentazio aurkezteko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) David Vertiz Hazen jaunari 2015eko martxoaren 31a arte ematea epea eskatutako dokumentazioa osatzeko.

11.- BERTIZKO PARTZUERGO TURISTIKOAREN DESEGITEARI BURUZ.

Alkateak adierazi du Partzuergoa desegiteko ematen ari diren pausuak eta horretarako dagoen Batzordearen bileren berri eman du.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

12.- CEDERNA-GARALUR: BIDE BERDEAREN KUDEAKETARI BURUZ.

Alkateak jakinarazi du Bide Berdearen kudeaketa Cederna-Garalur elkartearen esku uztea pentsatu dela. Hori guztia gauzatzeko hurrengo bileran erabakiko dela aipatu du.

13.- ARANTZAKO GURASO ELKARTEAREN GASTUAK.

Arantzako Guraso Elkarteak gabonetako hainbat gastu aurkeztu ditu.

Halaber, Udalak ordaindutako fakturak ere aurkeztu ditu horien erdia euren kargura izanen dela adieraziz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Gabonetako gastu guztia Udalaren kontura hartzea.
- 2) Eskolako sukaldeko hotzgailua moldatzeko lanak erdi bana izatea.

14.- CONDESA TALDEKO ELA ETA LAB-EN MOZIOA.

Ikusirik Condesa Taldeko ELA eta LAB sindikatuen mozioa.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Jendartean ezagutaraztea langileenganako babeseta eta Condesako langileen lanpostuen eta lan baldintzan babesgarri egiten den mozioa, enpresaren gardentasuna eza salatuz.

2) Condesako enpresari hitzordua eskatzea, enpresak jakinaraz dezan egungo egoera zertan den eta hark bideratuko dituen neurrien berri eman ditzan.

3) Eusko Jaurlaritzari nahiz Nafarroako Gobernuari eskatuko zaie ahalik eta gehien inplika daitezela Condesako lantokietako iraupena berma dadin, baita langileen enpleguan eta lan baldintzetan ere.

4) Honez gain, erakunde honek Condesari, honetan nahasiak dauden finantza erakindeei nahiz Arcelor Mittaleri eskatzen die lehenetsi eta errespetatu ditzatela enpleguari eta langileen lan baldintzei eutsi behar zaiela eta ez dezatela horren aurretik ezer jar.

15.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2015eko 7. ebazpenetik 13. arte).

15.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira izan

Bertzerik gabe, gaueko 20:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAk,
Ander Almandoz Indacochea.

